

Neska ala mutila?

Aukerako umeak izatea ez da amets zorua. Horretarako teknika jadanik erabilgarria da genetikako laborategietan eta Maryland hiriko ikertzaile-talde batek, esaterako, % 85eko eraginkortasuna erdie-tsi du. Jakina, saio guztiak animaliekin egin dira orain arte edo behintzat, hala esan zaigu guri. In vitro ernal-



Menurako seme-alabak izatea ez da jadanik ameskeri hutsa. Zientziaren aurrerabideek, ordea, gero eta arazo etiko gehiago ekarriko digute. In vitro ernalkuntzan lortu diren emaitzek etorkizuneko arazoak aurreikusteko balio digute.

kuntzako teknikak hobetu ahala, arazo praktikoak gutxiagotzen ari dira, baina eragozpen etikoak gero eta gehiago dira. Sexua aukeratzearaz gain, zenbait gaitasunen prebentzioa ere lor daiteke teknika berriei esker. Zientzi fikzioak maiz erakutsi digun gizarte homogeneo bidea zabalik al dago jadanik?

Gizakia, laborategiko arratoia

Laborategietako arratoiak aurki desagertuko dira Royston hiriko Pharmagene izeneko konpainiatik. Enpresak botika berriak ikertzen segituko du, baina datorren urte-tik aurrera ez du bere saioetan animaliarik erabiliko; horien ordez, giza organoak erabiliko ditu zuzenean.

Bob Coleman enpresako ikerketa-buruak dioenez “giza genetikaren eman diren aurrerapausoei esker, gaur egun ez da beharrezkoa animaliak sufriaraztea; giza-kiarentzat egin nahi ditugu botikak eta horretarako behar den informazioa giza genomatik eskura dezakegu”. Horretarako, hots, informazio hori eskuratzeko, “giza materiala” lortu beharko da eta, itxura guztien arabera, ez da zaila izango. Colemanek dioenez “odol-emaleak

Pharmagene enpresak botika berriak ikertzen segituko du, baina ez du bere saioetan animaliarik erabiliko; horien ordez, giza organoak erabiliko ditu.





eta organo-emaleak kontzientziazten egin den lana oso garrantzitsua izan da orain urratu behar dugun ikertzeko estilo berria abiarazteko. Errezeloak gainditu egin behar ditugu: odol-eta organo-emaleok mesede handia egingo dio gure buruari odola eta organoak ikerketarako erabil daitezen ematen baditugu”.

Saio nuklearrak eta lurrikarak

Arma Nuklearren Kontrolerako Hitzarmena sinatu badute ere, Txinak eta Frantziak egindako proba nuklearren oihartzuna ez da oraindik erabat isildu. Kanadako geologo-talde batek entseiu horien ondorioak aztertzen dihardu eta hasi da jadanik lanaren emaitzak plazaratzen.

Behin-behineko ondorioak biltzen dituen txostenak dioenez, azken 45 urteotan gertatu diren lurrikaren % 65 saio nuklearrak eragindakoak dira. Kanadako geologoek uste duteenez, datozen 10-15 urteotan azken bi urteotan Txinak eta Frantziak burutu dituzten leherketa nuklearren ondorioak planeta osoan nozituko dira. Lurrikara bortitzak sortuko ez badituzte ere, –geologoek diotenez, ezin

da horrela izango denik auresan– lur-mugimendu handiak eragingo dituzte epe motz eta ertainera.

Badator EROS

EROS, maitasunaren jainkoa ere badena, albiste bilakatu da egunotan. Izan ere, EROS 466 izeneko asteroidearen ibilbidea aztertzen ari zela, Paolo Farinella astronomo italiarrak Lurraren kontra talka egingo duela iragarri du. Lasai egon gaitzke, hala ere, Farinellaren esanetan talka ez baita berehala gertatuko: 1.000 milioi urte inguru beharko omen du EROS 466 asteroideak guganaino iristeko.


22 kilometro luze da EROS 466 asteroidea. Farinella astronomo italiarrak gogoratu duenez, dinosauruak desagertarazi zituen meteoritoa baino askoz handiagoa da, gainera.



EROS 466 Lurra eta Jupiterren orbiten artean jira-bira ari da. Martitzen indar grabitatorioak, ordea, bere ibilbidea okertu egingo duela uste du Farinellak. Arestian esan bezala, asteroidea ez da berehala desbideratuko eta baliteke, azkenean, Jupiterrek edota Lurrak berak bere onera bueltaraztea.

Martitzerako bideak

EEBBetako NASA Espazio Agentziak 2019. urtea baino lehen ez du gizakirik bidaliko Martitzera. Aspaldiko ametsa zena baztertu egin behar izan dute proiektuaren kostu ekonomikoa altuegia de-



Abenduan jaurtiko dituzte errusiarrek Martitzeratz lehen robotak eta 100 milioi kilometro zeharkatu ondoren, datorren urtean iritsiko omen dira bertara.

lako. Alabaina, horrek ez du Planeta Gorria estatubatuarren ikusmiratik desagertuko denik esan nahi. Izan ere, Martitzera robotak bidaltzeko proiektua iragarri berri du NASAK eta Bill Clinton presidenteak esan duenez, datorren urteko uztailaren 4an irtengo dira lehen robotak Martitzerantz. “Independence Day” filmea ikusi baduzu, irakurle, egun seinatu hori aukeratu izanaren arrazoia zein den jakingo duzu.

Ordurako, hau da, EEBBetako robotak espazioratuko dituztene-rako, Errusiako “Mars 96” espedizioa bertan izango da. Abenduan jaurtiko dituzte errusiarrek Martitzeratz lehen robotak eta 100 milioi kilometro zeharkatu ondoren, datorren urtean iritsiko omen dira bertara.

